



**Arartekoaren 2016R-1601-15 Ebazpena, 2016ko martxoaren 7koa. Horren bidez, aldiari behingo azoketan espazio publikoa legeria errespetatuz adjudikatzeko gomendatzen zaio Bermeoko Udalari.**

### Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, ez zegoelako ados Bermeoko Udalak aldiari behingo azoketan txosnak adjudikatzeko jardun zuen erarekin.

Erreklamazio egilea nekazaritzako ustiategi baten jabe da eta kalez kaleko salmenta-postu bat ere dauka, nekazaritzako azoketarako. 2013ko abuztuaren 21ean Bermeoko jaietarako salmenta-postu bat jartzeko baimena eskatu zuen, zehazki 2013ko irailaren 16rako. 2013ko abenduan, hau da, eskatutako baimenaren xede zen azoka egin eta hiru hilabetera, Bermeoko Udalak idazki baten bidez jakinarazi zion haren eskaera gaitzetsia izan zela.

Udalak bere "erabakia" arrazoitzeko, duela 15 urtetik taloa, txorizoa eta abar saltzeko txosnaz arduratzen dena (...) dela adierazi zion, azken horrek eskaintzen dituen zerbitzuekin oso pozik zeudela eta gainera, txosna horrek Bizkaiko hainbat udalerritan antolatutako azoketan modu aktiboan parte hartzen zuela.

2. Bermeoko Udalaren "jakinarazpenarekin" ados ez zegoenez, 2014ko urtarrilaren 3an interesdunak burofax bat bidali zuen, gaitzespenarekiko desadostasuna adieraziz eta ondorerik gabe uzteko eskatuz, hutsala zela uste zuelako. Interesdunak erakunde honi aurkeztutako dokumentazioaren arabera, posta zerbitzuak 2014ko urtarrilaren 7an entregatu zion erreklamazioa udalaren posta jasotzeaz arduratzen den pertsonari. Momentura arte ez du erantzunik jaso eta gainera, dienez, udalekoek ahoz esan diote ez zutela erreklamaziorik jaso.
3. 2015eko Santa Eufemia azokarako, erreklamazio egileak beste eskaera bat aurkeztu zuen, espazio publikoa okupatu eta txosna bat jartzeko. Udalak, 2015eko abuztuaren 17ko 695 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bitartez eta Kultura Sailak hala proposatuta, txosnen adjudikazioan parte hartzeko beharrezko baldintzak onetsi zituen, eta baita azoka antolatzeko eta koordinatzeko lanak adjudikatu zitzaizkion enpresak txosnak hautatzeko aplikatu beharreko irizpideak ere. Dekretu horrek hautaketarako ezarritako baldintzen artean, enpresa adjudikaziodunak azoketan ezarri beharreko salmenta-postuetatik hamabi zuzenean kudeatzeko eskubidea izango zuela ageri zen.



4. Bermeoko Udalaren eta azoka antolatzeko zerbitzua adjudikatu zitzaion enpresaren arteko kontratua 2015eko irailaren 8an sinatu zen. Kontratu horretako klausulen artean, markatutako funtzioak betetzeko pertsona bat kontratatzea eta 2.896,64 euroko (BEZ barne) kontraprestazio ekonomikoa ageri ziren.
5. Erreklamazio egileak txosnaren zozketan parte hartu zuen baina (...)k eskatutako txosnari adjudikatu zioten espazio publikoa. Erreklamazio egilearen arabera, adjudikaziodunak ez zituen 695 zenbakidun Alkatetza Dekretuan zozketan parte hartu ahal izateko ezarritako baldintzak betetzen, ez baitzuen IFKrik, ezta nekazaritzako ustiapen txartela ere. Egoera horren berri eman zien udal idazkariari eta zinegotziari, ahoz, eta ez zuen ezer lortu. Ondorioz, 2015eko irailaren 10ean burofax bidez bidali zuen txosna (...)ri adjudikatu izanaren aurkako alegazio-idazkia eta espedientea ikusteko eskatu zuen. Hala ere, ez zuen inongo erantzunik jaso.
6. Bermeoko Udalak guk egindako informazio-eskaerari erantzun zion, ondorengo esanez:

*“1601/2015/QC erreferentziadun espedientea dela eta, adierazi gura dugu (...) jaunarekin hainbat elkarrizketa eta batzar eduki direla eta, lehenengokotan egia bada be adierazi zitzaiola azoka hori enpresa baten bidez antolatzen zela eta enpresa hori arduratzen zela postuen esleipenaz, (...) jaunak egindako errekurtsu eta eskari ezberdinak sakonago aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak, 2015eko maiatzaren 11n izandako batzarrean, honakoa erabaki zuen (erabakiaren kopia eranstean da):*

**LEHENENGOA:** *Santa Eufemia eguneko Azoka berezirako postuen banaketea egin ahal izateko, erispide objektibo batzuk finkatzeko eskatzea Kultura Sailari.*

**BIGARRENA:** *Behin erispide horreek finkatu eta onartzen diranean, postuen banaketea egiterakoan, onartutako erispideak aplikatzeko agintzea azokearen antolaketea eta kudeaketaren zerbitzu kontratuaren esleipendunari.*

**HIRUGARRENA:** *(...) Jaunari, erabagi honen barri emotea, adierazoz, azoka horretan parte hartu gura badau, onartuko diran erispide horreen araberako eskaria egin beharko dauela, horretarako epea zabaltzen danean.*

*Hori horrela, erabaki horrekin, (...) jaunak egindako eskaria eta errekurtsu ezberdinak erantzuntzat eman ziren. Eta kontutan edukita (...) jaunak erabaki hori errekurritu ez zuela, irmo bilakatu zen.*

*Beraz, erabaki horrek agintzen zuena jarraituta, Kultura sailak oinarri batzuk prestatu zituen, 2015eko abuztuaren 17ko 695. Alkatetza Dekretu bidez*



*onartu zirenak (erabakiaren kopia eransten da). Dekretu horren berri (...) jaunari be eman zitzaion eta ez zuen bere aurkako errekurtsorik aurkeztu.*

*Are gehiago, (...) jaunak oinarri horien arabera eskaria aurkeztu zuen eta zozketa egunean, egindako zozketa publikora agertu zen.*

*Zozketa momentuan ezer esan ez bazuen be, zozketaren emaitzak jakin eta ordu batzuk beranduago, postua egokitu ez zitzaionez, teknikari eta zinegotzi ezberdinei deitzen hasi zen, zozketaren emaitzen arabera postua ipini ezin zuen arren -ez bazan zozketaren irabazleak postua ipintzeari uko egiten ziola- postua ipini gura zuelako.*

*Hori horrela, zozketan irabazle suertatu zen eskatzailearen dokumentazioa ikusi gura zuela adierazi zuela telefonoz eta, horren aurrean, telefonoz be adierazi zitzaion dokumentazio hori babestutakoa zela eta ezin zitzaiola eman.*

*Edozein lizitazio prozesutan, parte hartzaileek proposamen teknikoak eta ekonomiak ikusteko aukera daukate, beti be jabego intelektuala edo sekretupean dagoena salbu, baina ez beste enpresen dokumentazio orokorra ez bada Epaitegien bidez egiten dela dokumentazio eskaria.*

*Kasu honetan be berdin jardun dugu: eskatzaile guztien dokumentazio orokorra azoka antolatu zuen enpresaren esku dago eta, horrela jarraituko du, Epaitegiren batek dokumentazio hori bidaltzeko eskatu arte.*

*Argitu, Santa Eufemia eguneko azokaren antolatzailea Bermeoko Udala dela, baina zerbitzu kontratu bat esleitzen dela antolaketa horren kudeaketa osoa eroateko, talo postua barne, beste postu guztiekin batera...".*

### Kontsiderazioak

1. Hasteko, kexan adierazitako aurrekariak aipatu behar ditugu: interesdunak errekurtsua aurkeztu zuen 2013ko abenduaren 3ko ukapenezko "ebazpenaren" aurka, Bermeoko jaietan eta zehazki 2013ko irailaren 16an txosna bat jartzeko zena, eta ez zuen erantzunik jaso.

Udalak emandako erantzunean dioenez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko maiatzaren 11n hartutako erabakiaren bitartez, erreklamazio egileak aurkeztutako eskaerak eta errekurtsuak erantzunda geratu zirela ulertu zuen udalak eta ebazpen horren aurkako errekurtsorik aurkeztu ez zenez, mugiezin bilakatu zen.

Adierazitako udal erabakiaren arabera, Santa Eufemiaren jaiegunean taloak eta beste produktu batzuk saltzeko txosna bat jartzeko baimena eskatu zuen 2015eko otsailaren 2an. Erabakiaren kontsiderazioetan ageri den legez,





ezohiko azoka hori antolatzeko zerbitzuen kontratu bat adjudikatzen da eta eskaerak salmenta-postuak baino gehiago direla kontuan hartuta, norgehiagoka bidez eta berdintasunaren printzipioa bermatuz egin beharra dago. Hori dela eta, udal Kultura Sailari eskatu zitzaion irizpide objektibo batzuk ezartzeko, zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak salmenta-postuak adjudikatzeko orduan aplikatu zitzaizkien.

Formaren ikuspegitik, erabaki hori hartzeak ez du esan nahi 2013ko irailaren 16an egindako eskaera gaitzetsi izanaren aurka aurkeztutako erreklamazioari erantzun zaionik. Ikuspuntu materialetik, erabakiaren azalpenean adierazitakoak interesdunak 2014ko urtarrilaren 2an egindako zenbait alegazio onartzen dituela dirudi, zehazki espazio publiko jakin bat okupatzeko baimenak mugatuak diren kasuetan, administrazioak norgehiagoka-prozedura eta adjudikazioan interesa duten guztien berdintasuna bermatu beharko dituela.

Laburbilduz, badirudi erabaki honek (hurrengo ataletan aztertuko dugu praktikan nola aplikatu den) arrazoiak ematen diola interesdunari, bere garaian egindako erreklamazioari erantzun ez bazitzaion ere. Azken horrek salatu zuenez, taloak eta beste produktu batzuk saltzeko txosnaren adjudikazioan ez zen errespetatu norgehiagoka-prozedura.

2. 2015eko abuztuaren 17ko 695 zenbakidun Alkatetza Dekretuak, arestian aipatu bezala, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko maiatzaren 11n hartutako erabakia betetzea zuen helburu. Alkatetzak emandako ebazpenak onetsitako irizpideek, Kultura Sailak proposatutakoek, Santa Eufemiaren jaieguneko azokarako salmenta-postuak adjudikatzea zuten xede, adjudikazio hori urtean zehar egin beharreko gainerako azoketarako ere eraginkorra izango litzatekeelarik.

Lehenik eta behin, deigarria iruditu zaigu espazio publikoen adjudikazioan interesa duten guztiek bete beharreko "baldintza" horien artean azoka antolatzeaz arduratzen den enpresak, *"adjudikatutako zerbitzuen kontratuari dagozkion eskubideen artean"*, azokako hamabi salmenta-posturen kudeaketa zuzenean bere buruari adjudikatzeko eskubidea duela agertzeak.

Bermeoko Udalaren eta enpresa adjudikaziodunaren artean sinatutako kontratuak ez du inon aipatzen gauzako "kontraprestazio" hori eta kontratatutako zerbitzuengatik 2.896,64 euro ordaintzea aurreikusten zen eskusiboki, 2015eko irailaren 16an egin beharreko azoka antolatzeko funtzioak beteko zituen pertsona bat kontratatzeke obligazioaz gain.

Ez da inon ageri udalak azoka antolatzeko zerbitzua publikoki eta lehia askearen bitartez lizitatu zuenik, ekitaldia antolatzeko kontratatutako enpresari emandako hamabi salmenta-postuen kontraprestazioa barne. Horrenbestez, hamabi salmenta-postu horien instalazioa norgehiagoka-prozesutik eta zozketatik atera zen zuzenean, eta modalitate horiek





derrigorrezkoak dira udal espazio publikoa okupatzeko, eskaera kopuruak adjudikatu beharreko espazio publikoa gainditzen duenean. Egoki den deialdia ireki aurretik, ezin da jakin eskaera kopuruak espazio publikoa gainditzen duen edo ez.

Udalak badu kalez kaleko salmenta arautzen duen Ordenantza (169 zenbakidun BAO, 2015eko irailaren 3koa), Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legearen 70.2 artikuluari jarraituz hamabost lanegunetan indarrean sartu zena, 2006az geroztik indarrean zegoen Ordenantza ordezkaturik. Funtsean, orain interesatzen zaizkigun ondoretarako, baimenen arloan aplikatu beharreko araudia orokorra aipatzen da bi testuetan eta ez errepikatzeko, indarrean dagoen araudian xedatutakoa transkribatu dugu, araudi eguneratuago bati egiten diolako erreferentzia.

Hala, indarrean dagoen ordenantzaren 15. artikulua dioenez, norgehiagoka-prozeduraren bitartez eta zerbitzuetako jardueretara sarbide askea izateko eta horiek gauzatzeko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen II. kapituluaren ezarritakoari jarraituz emango dira baimenak, Herri Administrazioen Ondareari buruzko abenduaren 3ko 33/2003 Legearen 86. artikulua eta hurrengoak ere kontuan hartu beharko direlarik. Herri Administrazioen Ondare Publikoari buruzko 92.1 artikulua ondorengo dio:

*“Las autorizaciones se otorgarán directamente a los peticionarios que reúnan las condiciones requeridas, salvo si, por cualquier circunstancia, se encontrase limitado su número, en cuyo caso lo serán en régimen de concurrencia y si ello no fuere procedente, por no tener que valorarse condiciones especiales en los solicitantes, mediante sorteo, si otra cosa no se hubiese establecido en las condiciones por las que se rigen.”*

Horrenbestez, indarrean dagoen udal ordenantzak berak eta aipatu dugun eta aplikatu behar den araudiak zehazten dutenez, Bermeoko Udalak ezin dizkio azoka antolatzen duen enpresari zuzenean adjudikatu jarri beharreko hamabi salmenta-postu, salmenta-postuen baimenak norgehiagoka-araubideari jarraituz edo zozketa bidez eman behar direlako.

3. Taloak eta beste produktu batzuk saltzeko txosnak espazio publikoa okupatzeko bete behar dituen baldintzei dagokienez, kexa aurkeztu duen pertsonaren iritziz, baimenaren adjudikaziodunak ez zituen 2015eko abuztuaren 17ko Alkatetza Dekretuaren bidez onetsitako baldintzak betetzen eta hori frogatzeko, espedientea aztertzeke eskatu zuen. Hala ere, ez zuen inongo erantzunik jaso.

Udalak Arartekoari gai honen inguruan emandako erantzunak erakusten duenez, lizitazio prozesu orotan, parte-hartzaileek proposamen tekniko eta ekonomikoak aztertzeke eskubidea dute, betiere jabetza intelektualaren eskubidea eta kontratuen isilpekotasuna babestuz, baina ezingo dute beste enpresa baten dokumentazio orokorra aztertu, eskaera hori bide judizialek





egiten ez bada behintzat. Beraz, interesatzen den dokumentaziorako sarbidea ukatzen da eta ez du esaten txosnaren adjudikaziodunak eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu den edo ez.

Printzipioz jabari publikoko ondasunen baimenak eta kontzesioak kontratuen araubidetik salbuetsita dauden arren (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.1 o) artikulua), herri administrazioen ondareari buruzko araudi sektorialaren artikuluetan espezifikoki araututa ez dauden alderdietarako kontrataziorako arauetan xedatutakoa aplikatu beharko da. Ildo beretik, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiak ere (ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua) kontratazioari buruzko araudia aipatzen du (78.2 artikuluan, esaterako).

Hori dela eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak gai hori nola tratatzen duen aztertuko dugu. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, sektore publikoko kontratazioa prozeduren publikitatearen eta gardentasunaren printzipioetara egokitu behar da, besteak beste, eta hori lizitazioen publikitatean eta lizitatzailerei araudiaren eta lizitazioaren baldintzen kontraketat jotzen diren jarduketak berrikusaraztea ahalbidetzen dien informazioan islatzen da. Egia da horri muga bat jar dakiokela, udalak bere erantzunean adierazi bezala, eta muga hori lizitatzaila adjudikaziodunaren merkataritzako eskubideak babesteko isilpekotasuna izan daiteke (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 153. artikulua). Dena den, hori argudiatzea ez da nahikoa eta kasuz kasu egiaztatu behar da babeserako eskubidea adjudikazioduna ez den lizitatzailak zilegi zaizkion interesak defendatzeko behar duen informazioa lortzeko eskubidearen gaintetik jartzea, behar beste arrazoi emanez.

Gardentasunaren eta isilpekotasunaren ageriko kontraesan hori konpondu du kontratuen arloko errekurtsioetarako Auzitegi Administratibo Zentralak. Auzitegi horrek emandako 272/2011 zenbakidun ebazpenean, ondorengoa dio espedientea kontsultatzeko eskaeraren inguruan:

*“...si bien es cierto que una correcta notificación puede hacer innecesario el acceso al expediente por parte de quienes tengan la condición de interesados en el procedimiento de licitación al objeto de interponer recurso especial suficientemente motivado, ello no exime de la obligación que incumbe al órgano de contratación de conceder a los interesados en el procedimiento el derecho de información del expediente el cual se encuentra amparado por el artículo 35 de la LRJPAC, que en su apartado a) reconoce expresamente el derecho de los ciudadanos “a conocer, en cualquier momento, el estado de tramitación de los procedimientos en los que tengan la condición de interesados, y obtener copias de documentos contenidos en ellos”. A la vista de lo anterior el órgano de contratación deberá conceder el correspondiente acceso al expediente a la empresa recurrente, si bien deberá tener en cuenta la obligación que incumbe al citado órgano de contratación de respetar la debida confidencialidad, tanto de aquella información a la que se refiere el*





*artículo 137 de la LCSP, como de la obligación que con carácter general se establece en el artículo 124 de la LCSP.”(153. eta 140. artikuluei egiten die erreferentzia, hurrenez hurren).*

Aztertzen ari garen kasuan, ez da ematen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 153. eta 140. artikuluetan aipatzen diren eskaintza komertzial edo teknikoen isilpekotasun egoerarik. Kexan azaldutako kasuan, udalak planteatzen duena zera da: erreklamazio egileak ezin du beste enpresa baten dokumentazio orokorra aztertu, hau da, ezin du egiaztatu enpresa adjudikaziodunak lizitazioan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituen edo ez. Udalak ez du mugatze hori justifikatzeko arrazoi juridiko bakar bat ere ematen.

Aplikatu beharreko araudi orokorraren ikuspuntutik, interesdunak espedientea kontsultatzeko duen eskubideari dagokionez, udalak duen informazio publikorako sarbidea izateko eskubidearen esparruan, interesdunak behar duen informazioa lortzeko mugak dituela ikus genezake. Erreklamazio egileak zuzeneko interesa du espedientean, deialdian parte hartu duelako, eta zentzuzkoa da txosnaren adjudikaziodunak udalak eskatutako baldintzak betetzen dituen edo ez jakin nahi izatea; izan ere, beteko ez balitu, erreklamazio egilea izan liteke udalak antolatutako azoketarako espazio publikoa okupatuko lukeen onuraduna, bi eskaera bakarrik aurkeztu zirelako.

Honakoak dira txosna eskatu zutenek bete beharreko baldintzak:

- Nekazaritzako erregistroan altan emanda egotea.
- Elikagaien manipulatzailea izateko prestakuntza jaso izana.
- IFZ edukitzea.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 a) artikulua espedientea kontsultatzeko eskubidea ematen du eskatzailea prozedura horretan parte hartu duen interesduna bada. Horrez gain, espediente horietan dauden dokumentuen kopia lortzeko eskubidea ere ematen du. Momentu honetan, informazio publikoa lortzeko eskubidea gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ere araututa dator. Arestian adierazi dugun legez, udalak interesdunak bere interesak defendatzeko behar duen informazioa ematea ukatu izana arrazoitzeko esfortzurik egin ez badu ere, normalean informazio emateko betebeharra saihesteko ematen diren argumentu hipotetikoei aurrea hartuko diegu eta informazio publikoa jasotzeko eskubidea mugatu daitekeen kasu batzuk aipatuko ditugu. Hala, aipatutako Legearen 15. artikulua datu pertsonalak izan ditzakeen informazioa eskatzeko kasuak arautzen ditu eta zehazki, ondorengo dio 3. atalean:





*“Cuando la información solicitada no contuviera datos especialmente protegidos, el órgano al que se dirija la solicitud concederá el acceso previa ponderación suficientemente razonada del interés público en la divulgación de la información y los derechos de los afectados cuyos datos aparezcan en la información solicitada, en particular su derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal.*

*Para la realización de la citada ponderación, dicho órgano tomará particularmente en consideración los siguientes criterios:*

...

*b) La justificación por los solicitantes de su petición en el ejercicio de un derecho o el hecho de que tengan la condición de investigadores y motiven el acceso en fines históricos, científicos o estadísticos...”*

Kasu honetan, informazioa eskatu duen pertsonak espazio publikoaren adjudikazioari kontra egiteko eskubidea erabili nahi du, zalantzan jartzen duelako adjudikaziodunak udalak lizitazioan parte hartzeko jarritako baldintzak betetzen dituela. Beraz, informazioa lortzeko duen eskubidea gailendu behar da, udalaren edo kudeaketa adjudikatu zaion enpresaren erabakien aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izateko, ez baita hauteman espedienterako sarbidea mugatu dezakeen salbuespenik.

Ondorio hori babesteko, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Aretoak (zazpigarren atala) 2012ko ekainaren 19an emandako epaia aipatu behar dugu, 6937/2010 zenbakidun kasazio-errekurtsioari dagokionez:

*“...lo primero que debemos reconocer es que, efectivamente, los artículos 105. b) de la Constitución española y 37 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, amparaban la pretensión del recurrente de acceder a cualquier información del expediente, y desde luego también a la referida a los méritos de otros aspirantes en el proceso de concurrencia competitiva en el que tomó parte, así como la de que se le expidieran las copias correspondientes. Al no apreciar la Sala que concurriera ninguna de las excepciones que, por venir impuestas en las leyes, condicionan y limitan el acceso a los documentos obrantes en los archivos y registros públicos, no existía razón alguna para obstaculizar el acceso del recurrente a tal información, por lo que se estima que el rechazo administrativo a lo solicitado carecía de justificación y resultaba contrario a derecho.”*

Lizitazio bateko parte-hartzaile bati susmagarria iruditzen bazaio, susmo hori funsgabea bada ere, udal administrazioaren interesekoa izan behar da susmo hori guztiz argitzea. Horrela, hainbeste argudiatzen diren gardentasunaren eta gobernu onaren printzipioak beteko lirateke. Edonola ere, informazio publikorako sarbidea izateko eskaerari uko egin aurretik, behar bezala arrazoituta egon behar den zentzuzko zalantza bat badago (eta berriro diogu gure ustez ez dela hala izan), administrazioak beste bide batzuk erabili ahalko ditu, arestian aipatutako 15. artikulua 4. atalean ageri dena, esaterako:







*“No será aplicable lo establecido en los apartados anteriores si el acceso se efectúa previa disociación de los datos de carácter personal de modo que se impida la identificación de las personas afectadas”.*

Emandako arrazoiez gain, udalak interesdunari informazioa eman behar ziola kontuan hartuta, esan beharra dago erreklamazio egilearen aburuz txosnaren adjudikazioduna ez dela pertsona fisikoa, juridikoa baizik. Beraz, datu pertsonalak babesteko eskubidea mugatzeko arrazoi hipotetikoak ezin dira aplikatu kasu honetan. Hain zuzen ere, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak honela definitzen ditu datu pertsonalak, 3 a) artikuluan: *“cualquier información concerniente a personas físicas identificadas o identificables.”*

Gure ustez, planteatutako gaia edozein ikuspuntutatik aztertzen delarik ere, egindako kontsiderazioekin bat etorritik, Bermeoko Udalak interesdunak eskatutako informazioa eman behar duela ondoriozta genezake, interesdunak espazio publikoa taloak eta beste produktu batzuk saltzeko txosna batekin okupatzeko adjudikazioaren espedientearen defentsarako eskubidea erabil dezan.

4. Egindako kontsiderazioak kaltetu gabe, kexak espedientearen izapidetzeari eta hura ebazteko eskumena duen organoari buruzko zenbait zalantza ere sortzen ditu.

Lehenik eta behin, lehen aurreratu dugun moduan, informazio publikoa jasotzeko egiten den eskaera oro ukatzeko arrazoi nahikoa eman beharra dago. Gauza bera egin behar da informaziorako sarbide partziala emateko edo informazioa eskatu den modalitatea ez den beste baten bidez emateko. Gainera, idatziz eman behar da ebazpenaren berri, eskaera jaso eta hilabeteko epean (Gardentasunaren Legearen 20. artikulua), eta Bermeoko Udalak ez ditu legezko aurreikuspen horiek bete.

Bestalde, udalak dioenez, Santa Eufemia jaieguneko azokaren kudeaketari buruzko espedientea zerbitzua adjudikatu zaion enpresaren eskuetan dago, horrek antolatzen baitu azoka osoa. Ez dugu uste eragozpenik dagoenik azoka antolatzeko zerbitzua eskaintzeko modu horren kasuan, baina aurreikusitako espazio publikoaren erabilera (txosna barne hartuta) adjudikatzeko eskumena beste gauza bat da, eta hala da, baita ere, irekitako espedientea udaletxean egoteko beharra. Lizentziak emateko eskumena alkatearena da, lege sektorialek beren beregi udalbatzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari ematen ez badiote behintzat, eta eskumen horiek tokiko erakundearen beste organo batzuei eskuordetzea posible den arren, ezin ditu azokaren antolamendua adjudikatu zaion enpresak erabili (toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 q) artikulua).

Azoka antolatzeko enpresa adjudikaziodunarekin sinatutako zerbitzuen kontratuak honakoa dio lehenengo klausulan: enpresak zerbitzuari eskaini





beharreko zerbitzuak parte-hartzaileak aukeratzea da besteak beste, udaleko kideekin batera. Gure aburuz, klausula horrek ere legea errespetatzen du, betiere egin beharreko aukeraketa udal organo eskudunari egin beharreko proposamen modura hartzen bada, hark dagokiona ebatzi dezan, parte-hartzaileek ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren. Udal organoa iraunkorraren ebazpena edo erabakia ezarritako prozedurara egokitu beharko da (30/1992 Legearen 53. artikulua eta hurrengoak).

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### GOMENDIOA

1. Egoki diren izapideak egin aurretik, 2015eko Santa Eufemiako Azokaren harira espazio publikoan taloak eta beste produktu batzuk saltzeko jarri beharreko txosnaren adjudikazio-espediterako sarbidea baimentzea interesdunari.
2. Kasua bada, ekitaldian zehar egingo diren azoketarako taloak eta beste produktu batzuk saltzeko txosnaren adjudikazioa berrikustea.
3. Azokak antolatzeaz arduratzen den enpresari zuzenean hamabi salmenta-postu adjudikatu izana berraztertzea, espazio publikoan jarri beharreko salmenta-postu guztiak lehia askera irekita egon behar direlarik, lehiaketa bidez zein zozketa bidez.
4. Azoketan jarri beharreko salmenta-postu guztien adjudikazioa horretarako eskumena duen udal organoak egitea, egoki diren formalitate administratiboekin.

